BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1834

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 13koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Bizkaiko lurralde-ordezkariarena, zeinen bidez iragartzen baita Arrieta III Sarearen aldaketak eragindako zenbait finka okupatu aurreko aktak egiteko deialdia, V-63.4.12 eta V-67 erpinen artean, Urdulizko udalerrian.

Erref.: CG-F-2013-009. LUI/TLE.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariaren 2013ko urriaren 23ko Ebazpenaren bidez, baimena eman zitzaion Naturgas Energia Distribución, S.A.U.ri « Arrieta III Sarearen aldaketa, V-63.4.12 eta V-67 erpinen artean» izeneko proiektua burutzeko, eta onura publikokotzat jo zen.

Hidrokarburoen urriaren 7ko 34/98 Legearen 105. artikuluaren arabera (BOE 1998-10-08), onura publikoaren adierazpen horrek berekin dakar ondasunak okupatu edo ukitutako eskubideak eskuratu beharra eta, era berean, berekin dakar premiaz okupatu beharra, 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluko ondorioetarako eta lege horrexen 53. artikuluko erregistro-ondorioetarako.

Bizkaiko lurralde-ordezkariak, aipatu 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikulua betez, jabeei eta ukitutako eskubideen titularrei Urdulizko Udalera dei egitea erabaki du, hortxe baitaude ukitutako ondasunak; izan ere, aktak udalerri horietan egingo dira, betiere, ukitutako ondasunak okupatu baino lehen eta, bidezkoa balitz, baita behin betiko okupatzeko akta ere; nolanahi ere, beharrezko denean, ondasunok dauden lekura ere joan ahal izango da.

Interesdunak eta ukitutako ondasunen gaineko eskubide edo interesak dituztenak eurak bertaratu beharko dira, edo, bestela, behar bezala baimendutako ordezkariren bat bidaliko dute; horrez gain, titulartasuna adierazteko egiaztagiriak eta kontribuzioaren azken erreziboa aurkeztuko dituzte, eta, nahi izanez gero, peritu edo notarioren baten laguntza ere eraman dezakete.

Aurreko aktak 2014ko maiatzaren 14an jasoko dira. Aktak egiteko agindua zitazio-zedula baten bidez bidaliko zaie titularrei. Zitazio horretan lekua, eguna eta ordua adieraziko dira. Bestalde, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan jasotako gainerako argitalpenak ere beteko dira.

Naturgas Energía Distribución, S.A.U. izango da onuradun desjabetzearen espedientean.

Era berean, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 56.2 artikuluarekin bat etorriz, interesatuek eta, eskubide errealen edo ekonomi interesen titular izanik, argitaratutako zerrendan agertzen ez direnek idatziz aurkez ditzakete komenigarri deritzeten alegazioak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Bizkaiko Lurralde Bulegoan (Concha Jenerala kalea 23-5., Bilbo 48010). Okupatu aurreko aktak egiteko egunera arte aurkez ditzakete alega-

zioak; alegazioon helburua ukitutako ondasun eta eskubideak zerrendatzean eginiko akatsak zuzentzea soilik izango da.

Bilbao, 2014ko otsailaren 13a.

Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
ADOLFO GONZALEZ BERRUETE.

ALDEZ AURRETIKO AKTETARAKO ZITAZIOA

Eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda

Arrieta III Sarea Aldatzea, V-63.4.12 Eta V-67 Erpinen Artean

Esp: CG-F-2013/09 Erref.: LUI/TLE

URDULIZKO UDALERRIAN

Lursaila	Katastro-erreferentzia: (udalerria- poligonoa - partzela)	Titularra	Eguna	Hilabetea	Ordua	Udaletxea
BI-UR-02	089-001-228	Artadi 2006, S.L.	14	Maiatza	9:30	Urduliz
BI-UR-05	089-001-147	Hros. Agapito Basañez Ayo	14	Maiatza	10:00	Urduliz
		Maria Rosario Basañez Ayo				
		Agapito Basañez Ayo				
		Maria Begoña Basañez Ayo				
		Endika Basañez Ayo				
		Jesus Maria Basañez Ayo				
BI-UR-06	089-001-198	Izaskun Perez Basañez	14	Maiatza	10:30	Urduliz
BI-UR-07	089-001-226	Josefa Txaber Perez Basañez	14	Maiatza	11:00	Urduliz
BI-UR-09	089-001-226	Promociones Irurena 2000 S.L.	14	Maiatza	12:00	Urduliz
BI-UR-01	089-001-CMN	Urdulizko Udala	14	Maiatza	12:30	Urduliz
BI-UR-03	089-001-CMN					
BI-UR-04	089-001- CMN					
BI-UR-08	089-001- CMN					